



TOKIKO GOBERNU BATZORDEA

JUNTA DE GOBIERNO LOCAL

TOKIA / LUGAR: Gizarte-etxea  
DATA / FECHA: 2018/05/09  
HASIERA / INICIO: 21:10  
AMAIERA / FINAL: 21:15

BERTARATUAK / ASISTENTES:  
ALKATEA / ALCALDE  
Aitor Aretxaga Telletxea (EAJ-PNV)

ZINEGOTZIAK / CONCEJALES:  
Miren Idoia Etxebarria Otazua (EAJ-PNV)  
Andoni Elorrieta Arronategi (EH BILDU)  
Jon Ander Zulueta Andicoechea (BIT)

IDAZKARI OROKORRA / SECRETARIO GENERAL  
V́ctor-Martín Amparan ́lvarez

IZAERA / NATURALEZA: Ohikoa / Ordinaria  
DEIALDIA / CONVOCATORIA: Lehena / Primera



Busturiko Udaletxean, adierazitako egun eta orduan, Alkate jauna buru zela, Tokiko Gobernu Batzordea bildu zen ohiko saioa egiteko lehen deialdian Ekitaldiaren fede eman zuen Udalbatzaren idazkari Víctor-Martín Amparan Álvarez jaunak.

Alkate jaunaren aginduz, ekitaldiari hasiera eman zitzaion, aurretik nahikoa denboraz zinegotziei banatutako gairerrendaren arabera, eta akordio proposamen hauek egin ziren:

En el Ayuntamiento de Busturia, siendo el día y hora indicados, bajo la Presidencia del Sr. Alcalde y con asistencia de los concejales arriba mencionados, se reunió la Junta de Gobierno Local, al objeto de celebrar sesión ordinaria en primera convocatoria. Dio fe del acto el Secretario de la Corporación, D. Víctor-Martín Amparan Álvarez.

De orden del Sr. Alcalde dio comienzo el acto conforme al orden del día que ha sido distribuido entre los concejales con la suficiente antelación, adoptándose los siguientes acuerdos:

### 1.- Aurreko saioko akta.-

Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez adostu zuen 2018ko apirilaren 11ko saioko akta onartzea.

### 1.º.- Acta de la sesión anterior.-

La Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó aprobar el acta de la sesión de 11 de abril de 2018.

### 2.- 2019ko Herriko Jaia.-

Eusko Jaurlaritzako Lan eta Justizia Sailaren 51/2018 Dekretua irakurri zen, apirilaren 10ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Lan Egutegi Ofizialeko 2019ko Jaiegunei buruzkoa, zeinak dioen aipatu jaiez gain beste bi herriko jai egongo direla, horietako bat dagokion Udalak proposatua.

Hori ikusirik, Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez erabaki zuen San Kristobal eguna, uztailak 10, izendatzea herriko jai, baita aipatu Saileko Lurralde Ordezkaritzari jakinaraztea ere.

### 2.º.- Fiesta Local 2019.-

Se dio lectura al Decreto 51/2018, de 10 de abril, del Departamento de Trabajo y Justicia del Gobierno Vasco, por el cual se aprueba el Calendario Oficial de Fiestas Laborales de la Comunidad Autónoma de Euskadi para el año 2019, señalando que, además de las indicadas, existirán dos fiestas locales, una de las cuales deberá ser propuesta por los Ayuntamientos respectivos.

A la vista de ello, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó designar como fiesta local la de San Cristóbal, el 10 de julio, así como comunicárselo a la Delegación Territorial de la citada Consejería.

### 3.- Iozki-kioskoen enkantea.-

Batzordeak aho batez proposatu zuen kioskoak jartzeko bide publikoaren erabilera pribatiboa lagatzeko baldintza-orria onartzea, baita kiosko horiek esleitzeko enkantea deitzea ere.

### 3.º.- Subasta de quioscos de helados.-

La Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó aprobar el pliego de condiciones para la concesión de uso privado de la vía pública mediante la instalación de quioscos y convocar subasta para la adjudicación de los mismos.

### 4.- Itxasbegiko otarrain-haztegia.-

Euskadiko Itsasbazter Mugaketaren Ebazpenaren berri eman zitzaion Tokiko Gobernu Batzordeari, zeinaren bidez ondokoa jakinarazten den: lehengo itsaski-haztegiaren emakida iraungita (hamabost urteko epea amaitu delako), ez dagokio emakida luzatzea, baizik eta, hala badagokio, beste bat esleitzea, Itsasbazterren Araudi Orokorra onartzen duen urriaren 10eko 876/2014 Errege Dekretuaren 152. artikuluan zehaztutako prozeduraren arabera.

Hori ikusirik, Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez erabaki zuen beste emakida bat eskatzea, udal-arkitekto aholkulariak eginiko dokumentazioa oinarri.

### 4.º.- Langostero de Itxasbegi.-

La Junta de Gobierno Local fue informada de la resolución de la Demarcación de Costas del País Vasco por la que se informa de que, extinguida la concesión del antiguo vivero de mariscos por vencimiento del plazo de quince años, no procede el otorgamiento de una prórroga de la misma sino, en su caso, el otorgamiento de una nueva concesión a tramitar conforme al procedimiento establecido en el artículo 152 del Real Decreto 876/2014, de 10 de octubre, por el que se aprueba el Reglamento General de Costas.



A la vista de ello, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó solicitar una nueva concesión en base a la documentación elaborada por el Arquitecto Asesor Municipal.

## 5.- Energia-eraginkortasuna (Tokiko Agenda 21).-

Bizkaiko Foru Aldundiko Ingurumen Zuzendaritza Nagusiaren Ebazpenaren berri eman zitzaion Batzordeari, zeinaren bitartez 42.079,91 euroko diru-laguntza eman zaion udal honi beraren kirol-instalazioetako eta herriko argiak ordeztzeko aurkeztutako energia-eraginkortasun egitasmorako.

Halaber, jakinarazi zitzaion Energiaren Euskal Erakundeak (EEE) energia-eraginkortasun inbertsioak nahiz tokiko herri-administrazioaren sektorean energia berriztagarrien erabilera laguntzeko programa argitaratu duela, zeina banatzen den kanpoko argiteria publikoaren eta egungo udal-eraikinen argiztapenaren artean. Diru-laguntza eskatzeko, zera aurkeztu behar da EEEen: sinatutako eskaera-agindua edo sinatutako eta formalizatutako kontratua, diru-partidak zehatz eta banakatuta jasota.

Hori ikusirik, Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez erabaki zuen energia-eraginkortasun egitasmoa ondorengo ataletan banakatzea:

- Argiteria publikoak.
- Udal-eraikinak.
- Futbol-zelaia.

## 5.º.- Eficiencia energética (Agenda Local 21).-

La Junta de Gobierno Local fue informada de la Resolución de la Dirección General de Medio Ambiente de la Diputación Foral de Bizkaia, por la que se concede a este Ayuntamiento una subvención de 42.079,91 para el proyecto de eficiencia energética presentado para la sustitución de iluminación en instalaciones deportivas municipales y alumbrado público.

Asimismo fue informada de que el Ente Vasco de la Energía ha publicado el Programa de ayudas a inversiones en eficiencia energética y uso de energías renovables en el sector de la administración pública local, que se divide entre el de alumbrado público exterior y el de edificios municipales existentes. Para solicitar subvención el EVE exige la presentación de orden de pedido firmada, o contrato formalizado y firmado, debiendo presentar de forma detallada y desglosada las diferentes partidas económicas.

A la vista de ello, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó desglosar el proyecto de eficiencia energética en los siguientes capítulos:

- Alumbrados públicos.
- Edificios municipales.
- Campo de fútbol.

## 6.- Herriko Udalekuak 2018.-

Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez proposatu zuen hurrengo:

1.- “Herriko Udalekuak” kanpainan ikasleek izena emateko epea irekitzea. Lehentasuna izango dute Busturian erroldatutako adin txikikoek eta José María Ucelay Ikastetxe Publikoko ikasleek. Tarifak hauek izango dira:

- Erroldatuak (2018ko urtarrilaren 1a baino lehen):
  - 70 € haur bakarra
  - 85 € bi neba-arreba
  - 95 € hiru neba-arreba
- Erroldatu gabeak:
  - 140 € haur bakarra
  - 170 € bi neba-arreba
  - 190 € hiru neba-arreba

Irteerak inskripzioaren prezioan sartuta daude.

2.- Aipatu kanpainarako begiraleak aukeratzeko oinarriak onartzea (berdintasun-, publizitate- eta merezimendu eta gaitasun-printzipioa bermatu beharko dituzte oinarriek), eta

## 6.º.- Herriko Udalekuak 2018.-

La Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó:

1.º.- Abrir el plazo de inscripción de alumnos para la campaña “Herriko Udalekuak” estableciendo la prioridad de los menores empadronados en Busturia y alumnos del Colegio Público José María Ucelay y fijando las siguientes tarifas:

- Empadronados (antes del 1 de enero de 2018):
  - 70 € un niño/a
  - 85 € dos hermanos/as
  - 95 € tres hermanos/as
- No empadronados:
  - 140 € un niño/a
  - 170 € dos hermanos/as
  - 190 € tres hermanos/as

Las salidas que se realicen están incluidas en el precio de inscripción.

2.º.- Aprobar las bases para la selección de los monitores para esa campaña que garanticen los principios de



hautaketa-prozesuaren deialdia egiteko iragarkia argitaratzea.

Oinarriei dagokienez, adostu zen titulazio-baldintza (astialdiko begiralea edo haur eta lehen hezkuntzan graduatua) eta langabeziaren balioespena (azkenengo bi urteak) aldatzea. Era berean, eskaera-eredu ofiziala onartu zen.

igualdad, publicidad, mérito y capacidad y publicar anuncio convocando el proceso de selección.

En las bases se acordó modificar el requisito de titulación (monitor de tiempo libre o graduado/a en educación infantil o primaria), la valoración del desempleo (los dos últimos años), y se aprobó el modelo oficial de solicitud.

## 7.- BBK Urdaibai Zentroaren eskaera.-

Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez erabaki zuen BBK Urdaibai Zentroaren eskaera onartzea, Bizkaia BBK Cup dela-eta (ekainaren 8an, 9an, 10ean, 15ean, 16an eta 17an jokatu da) udal-agertokia erabili ahal izateko.

## 7.º.- Solicitud del Centro BBK Urdaibai.-

La Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó aceptar la petición del Centro BBK Urdaibai, para que se les autorice la utilización del escenario municipal, con motivo de la Bizkaia BBK Cup, que se celebrará los días 8, 9, 10, 15, 16 y 17 de junio.

## 8.- J. J. U. A.ren eskaera.-

Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez erabaki zuen J. J. U. A.ren eskaera onartzea, bere lursail bateko (Altamira auzoan) haritz batzuk moztu ahal izateko.

## 8.º.- Solicitud de J. J. U. A.-

La Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó acceder a la petición de J. J. U. A. para la tala de unos robles situados en un terreno de su propiedad, en el barrio de Altamira.

## 9.- Busturia Txirrindulari Taldearen diru-laguntza eskaera.-

Busturia Txirrindularitza Taldeak "2018ko kadeteen Busturiko Udala saria" eta "Eskolen arteko lasterketa" txirrindularitza-probetarako eginiko diru-laguntza eskaerak ikusirik, Tokiko Gobernu Batzordeak ondokoa erabaki zuen, aho batez:

- 1.- 1.100 eta 400 euroko diru-laguntzak ematea, hurrenez hurren.
- 2.- Eskatutako laguntza material guztiak ematea.

## 9.º.- Solicitud de subvenciones del Busturia Txirrindulari Taldea.-

Vistas las solicitudes de subvenciones realizadas por el Busturia Txirrindulari Taldea para las carreras ciclistas "2018ko kadeteen Busturiko Udala saria" y "Eskolen arteko lasterketa", la Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó:

- 1.- Concederles subvenciones por importe de 1.100 y 400 €, respectivamente.
- 2.- Concederles todas las ayudas materiales solicitadas.

## 10.- O. B.en eskaera.-

Ondoren, O. B.ek aurkeztutako idazkia irakurri zen, zeinetan eskatu duen asteburuetan musika jo ahal izateko udal-areto bat erabiltzeko baimena. Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez adostu zuen eskaera ukatzea, arrazoi hauek direla eta:

- 1.- Eskaera ez du egin Udal Erregistroan izena emanda da goen elkarte batek edo antzeko erakunde batek.
- 2.- Eskatzaileak irabazi-asmoz egiten du jarduera hori. Horren erakusgarri da Busturiko Udalak bi kontzertutarako kontratatu izana (martxoaren 23rako eta maiatzaren 18rako), zeintzuen truke ordainsaria jaso zuen.
- 3.- Udalak lokalak halako jarduera partikularrak garatzeko utzi izan dituen, esperientziak ez dira batere onak izan.
- 4.- Halako erabilerak baimenduko balira, Udalak musika-instrumentuekin entseatzan duten herritarren makina bat eskaera (lagapen-baldintza berberekin) jaso lezake.

## 10.º.- Solicitud de O. B.-

A continuación se dio lectura al escrito presentado por O. B. para que se le autorice a utilizar alguna sala municipal para practicar música los fines de semana.

La Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó denegar la solicitud planteada por los siguientes motivos:

- 1.- La solicitud no proviene de una asociación o entidad similar, inscrita en el Registro Municipal.
- 2.- El solicitante realiza esa actividad musical con ánimo de lucro, como lo demuestra el que el Ayuntamiento de Busturia le haya contratado para dos conciertos los días 23 de marzo y 18 de mayo, percibiendo por ello una retribución económica.
- 3.- Las experiencias anteriores en la cesión de locales para este tipo de actividades particulares no han sido nada positivas.



4.- De autorizarse este tipo de usos, el Ayuntamiento podría verse desbordado por las peticiones de los vecinos que ensayan con instrumentos musicales, que pedirían las mismas condiciones de cesión.

## 11.- Organo-kontzertuak.-

Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez erabaki zuen ondokoa: udal honen parte-hartzea onartzea "Urdaibaiko organoak - Joxe Mari Eguileor" organo-kontzertuen denboraldian ("Urremendi" Landa Garapen Elkarteak antolatua), baita egitaraua ere.

## 11.º.- Conciertos de órgano.-

La Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó aceptar la participación de este Ayuntamiento en la temporada de conciertos de órgano "Urdaibaiko organoak - Joxe Mari Eguileor", elaborado por la Asociación de Desarrollo Rural "Urremendi", y aprobar su programación.

## 12.- F. B. H. ren ibilgailuen gaineko zerga-salbuespena.-

Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen Gaineko Zerga eraentzen duen Udal Ordenantza Fiskalaren laugarren artikulua xedatutakoaren arabera, Tokiko Gobernu Batzordeak ahoz batez erabaki zuen F. B. H.K aurkeztutako eskaera onartzea, zeinetan galdegin zuen 2019. urtean eta hurrengoetan BI-8597-BP matrikuladun bere autoa zerga ordaintzetik salbuestea; izan ere, gutxienez 25 urteko antzintasuna bete du ibilgailuak ekoizteko zenetik.

## 12.º.- Exención del impuesto del vehículo de F. B. H.-

Dada cuenta del escrito presentado por F. B. H., por el que solicita la exención, para el año 2019 y sucesivos, del impuesto sobre Vehículos de Tracción Mecánica, del turismo de su propiedad, matrícula BI-8597-BP, por ser un vehículo con una antigüedad mínima de 25 años desde la fecha de su fabricación, en aplicación de lo dispuesto en el artículo cuarto de la Ordenanza Fiscal municipal reguladora del impuesto, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó aceptar la solicitud presentada.

## 13.- E. A. D. eta T. I. O. ren aparkaleku- txartela.-

Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailak igorritako aldedeko txostenak aintzat hartuta, Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez erabaki zuen E. A. D.k eta T. I. O.k eskatutako ezinduentzako aparkaleku-txartelak ematea.

## 13.º.- Tarjeta de estacionamiento de E. A. D. y T. I. O.-

Vistos los informes favorables emitidos por el Departamento de Acción Social de la Diputación Foral de Bizkaia, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó conceder las tarjetas de estacionamiento para minusválidos, solicitadas por E. A. D. y T. I. O.

## 14.- Tenis Pubaren espedientea.-

Tokiko Gobernu Batzordeari jakinarazi zitzaion M. Z. G.k ez dituela egin Tenis Pubeko zahaiztien mozketak eta inausketak, 2018ko otsailaren 7ko akordioaren ondorioz eskatu zitzaizkionak.

Halaber, jakinarazi zitzaion aipatu lokalaren auzokide J. U. U.k kexa adierazi duela, lanak egin ez direlako, hain zuzen.

Hori ikusirik, Tokiko Gobernu Batzordeak hurrengo adostu zuen, aho batez:

- 1.- Aipatu lanen betearazte subsidiarioari ekitea.
- 2.- Bide publikotik egin daitezkeenak zuzenean egikaritzea.
- 3.- Mozketak lanak egin ahal izateko, Tenis Pubeko lursailean sartzeko baimena eskatzea Zabala andreari.
- 4.- Baimena lortuko ez balitz, dagokion baimen judiziala izapidetzea.

## 14.º.- Expediente del Pub Tenis.-

La Junta de Gobierno Local fue informada de que M. Z. G. no ha procedido a ejecutar los trabajos de tala y poda en el arbolado del Pub Tenis, tal y como se le había requerido por acuerdo de 7 de febrero de 2018.

Asimismo, fue informada de que J. U. U., vecino cercano a dicho establecimiento, ha manifestado su queja de que no se haya procedido a la realización de esos trabajos.

A la vista de ello, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó:

- 1.- Proceder a la ejecución subsidiaria de los trabajos indicados.
- 2.- Ejecutar directamente los que puedan realizarse desde la vía pública.
- 3.- Solicitar autorización a la Sra. Zabala para entrar en la parcela del Pub Tenis para la ejecución de las labores de tala.



4.- En el caso de que no se obtenga esta autorización, tramitar la correspondiente autorización judicial.

## 15.- Herriko jaietarako aurrekontua.-

Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez erabaki zuen herriko jaietarako egitaraua eta aurrekontua onartzea, ondorengo zehaztasunei jarraiki:

- San Kristobal: 20.841,60 €
- Axpe: 6.679,00 €
- Parezi: 4.000,00 €
- Itsasoko Ama: 4.315,90 €
- San Bartolome: 3.968,00 €
- San Miguel: 1.100,00 €

Eta, besterik gabe, Alkate jaunak amaitutzat eman zuen saioa, eta, adostutakoa oinarri, Alkate jaunak eta egiazta-pena damaion Idazkariak sinatutako akta hau idatzi zen.

Alkatea / El Alcalde,

Izp. / Fdo.: Aitor Aretxaga Telletxea

## 15.º.- Presupuesto de fiestas locales.-

La Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó aprobar el programa y el presupuesto de las fiestas locales según el siguiente detalle:

- San Cristóbal: 20.841,60 €
- Axpe: 6.679,00 €
- Paresi: 4.000,00 €
- Virgen del Mar: 4.315,90 €
- San Bartolomé: 3.968,00 €
- San Miguel: 1.100,00 €

Y no habiendo más asuntos que tratar, el Sr. Alcalde dio por terminado el acto y de lo acordado se extendió la presente acta que firman, el Sr. Alcalde y el Secretario que certifica.

Idazkaria / El Secretario,

Izp. / Fdo.: Víctor-Martín Amparan Álvarez